



Hernani kultura

**2026
URTARRILA -
EKAINA**

Biteri kultur
etxea



**Hernaniko
Udala**

Agenda 2026 URTARRILA - EKAINA



Antzerkia



Dantza



Erakusketak



Literatura



Musika



Zinekluba



HernaniKultura



@HernaniKultura



@HernaniKultura



@libhernani



@libhernani

Urtarrila

Abe 15 — Urt 30 

IJITOEN BIZIERAK. Lungo Drom 56

05 · 18:00 

ERREGEEN KABALGATA. Hernaniko Txistulariak, Musika Banda 18

13 · 19:00 

AMOK. Stefan Zweig 59

16 · 22:00 

PETTI ETA ETXEKO UZTA. XX ta bortz 09

20 · 18:30 

JENDE NORMALA. Sally Rooney 64

21 · 17:30/18:00 

IPUIN KONTAKETA. Maite Franco 66

22 · 19:00 

NOR NAIZEN BANEKI. Artedrama eta Axut! 43

23 · 19:00 

AKELARRE MAREAREN KONTRA. Carlos Iglesias Serrano, Xabier Zabala Aguirrezabal 57

24 · 12:00 

KIMU. Marie de Jongh 31

28 · 19:00 

EL CANTAR DEL PROFETA. Paul Lynch 59

29 · 19:00 

SINGULAR. Alberto Gastesi 57

30 · 11:00 

KONTU KONTARI +75. Dorleta Kortazar 67

Otsaila

02-10 

1975. DENA JOKOAN ZEGOEN URTEA. Iratzar Fundazioa 56

04 · 19:00 

SANTA AGEDA BEZPERA. Hernaniko Txistulariak 19

05 · 19:00 

ZERBAIT SARTU ZAIT BEGIAN. Imanol Epelde 45

06 · 19:00 

BERTSO SAIO TEMATIKOA. Geuretik Sortuak 22

07 · 12:00 

COMPaña. Xampatito Pato 33

08 · 13:30		INAUTERI KONTZERTUA. Hernaniko Musika Banda	18
10 · 19:00		HAMABOST EGUN URGAINEN. Jose A. Loidi	59
11- Mar 6		MARI. IZENA DUENAK IZANA DU. Jaione Garcia Santesteban	56
11 · 17:30/18:00		IPUIN KONTAKETA. Pello Añorga	66
12 · 18:00		OSTEGUN GIZENEO KALEJIRA. Musika Eskola	20
14 · 10:00		AZERI DANTZA. Hernaniko Txistulariak	19
14 · 12:30		ERRALDOI ETA BURUHANDIAK. Hernaniko Txistulariak	19
15 · 19:00		SOROTAN BELE & HERNANIKO BANDA. Hernaniko Musika Banda	18
16		09:00 DIANA · 10:00 AZERI DANTZA. Hernaniko Txistulariak	19
17 · 19:00		AMORANTE FRANTSESA. Miren Agur Meabe	64
19 · 19:00		CHARLAS DE AZUCARILLO. Les Couchers	47
25 · 19:00		LA VIDA DE LAS PAREDES. Sara Morante	60
26 · 19:00		THE BIG LEBOWSKI. Joel Coen	57
27 · 11:00		KONTU KONTARI +75. Dorleta Kortazar	67
27 + 28 + Martxoak 1		HERNASAX JARDUNALDIAK. DAVID SALLERASEN MASTERCLASS ETA SAXO KONTZERTUAK. Musika Eskola	20
27 · 19:00		EUFORIA. Cielo Raso	25

Martxoa

05 · 19:00		AITATXO. Anakotz Lasarte	49
------------	---	---------------------------------	----

07 · 12:00		HODEI GUZTIEN GAINETIK. Markeliñe	35
10 · 18:30		EMAKUME KONPOSITOREEN KONTZERTUA. Musika Eskola	20
10 · 19:00		NORBERAK MAITE DUENA. Miren Billelabeitia	60
12 · 17:30/18:00		IPUIN KONTAKETA. Lur Korta	66
12 · 19:00		OLD JOY. Kelly Reichardt	58
13 · 22:00		OLATZ SALVADOR. Zainak eman	11
15 · 11:00		AURRESKU TXAPELKETA. Gipuzkoako Dantzarien Biltzarra	27
16- Api 14		BEREZITASUNAREN ERRONKA: BERRERABILPEN SORTZAILEA DEKORAZIOAN. Susana Rodríguez Soto	56
17 · 18:30		ZORIONA EDO ANTZEKO ZERBAIT. Karmele Mitxelena	64
21 · 12:00		%100 HODEI. Cía Mago Hodei Magoa	37
25 · 18:30		TEKLATU TALDEEN ENTZUNALDIA. Musika Eskola	20
25 · 19:00		TUYA. Claudia Piñeiro	60
26 · 19:00		KAKA. Xanti Agirrezabala, Erika Olaizola	51
27 · 11:00		KONTU KONTARI +75. Dorleta Kortazar	67
28 · 18:00		UDABERRIKO KONTZERTUA. Hondarribiko Musika Banda eta Hernaniko Musika Banda	18

Apirila

09		ZINEKLUBA: FAMILIENTZAKO SAIO BEREZIA	58
14 · 19:00		LURPEKO EZKUTUAN IDATZIAK. Fiodor Dostoievski	61

15 · 17:30/18:00		IPUIN KONTAKETA. Apaxi	66
16 · 19:00		FEMMM & BAND	13
18 · 12:00		XOMORROT XOAK. Spasmo Teatro	39
20-24		EUSKAL JANTZIEN ERAKUSKETA. Sanjoan Konpartsa	56
21 · 18:30		PUNTOBOBO. Itxaso Martin Zapiain	65
23 · 19:00		BI BASO BAT UR. Metrokoadroka	53
24 · 11:00		KONTU KONTARI +75. Dorleta Kortazar	67
24 · 19:00		GIPUZKOAKO HERRIARTEKO BERTSO TXAPELKETA. Gipuzkoako Bertsozale Elkartea	23
25- Mai 22		EMAKUMEA ETA KIROLA. Mendi Urruzuno	53
25		EZPELETAKO TRIKITILARI ETA ALBOKARIEKIN ELKARTRUKEA. Musika Eskola	21
25		DULTZAINERO ETA GAITEROEN HERNANIKO 2. TOPAKETA. Musika Eskola	21
29 · 19:00		EL ENREDO DE LA BOLSA O LA VIDA. Eduardo Mendoza	61
30 · 19:00		WILD AT HEART. David Lynch	58

Maiatza

03		PERKUSIO TOPAKETA. Musika Eskola	21
06 · 17:30/18:00		IPUIN KONTAKETA. Maite Franco	66
07 · 19:00		DESOBEDIENTEAK 18/98. Tanttaka Teatroa	55
08 · 19:00		JOSEBA KORTA PACHECO. Gradu amaierako kontzertua	15

09 · 12:00		AMAMA IRRIBARREEN ONDAREA. Eidabe Ekimen Kulturalak	41
12 · 19:00		TXAKUR ZAUNKAK ATEAN. Juan M. Elexpuru	62
13 · 18:30		7 URTEKOENTZAKO SOINU TRESNEN AURKEZPENA. Musika Eskola	21
14 · 19:00		LASALA 10 URTE. Lasala dantza konpainia	29
19 · 18:30		BESTE ZERBAIT. Danele Sarriugarte	65
21 · 19:00		LOST IN TRANSLATION. Sofia Coppola	58
23 · 20:00		MADDI OIHENART ETA JUANTXO ZEBERIO. Lur	17
25-30		ESKULANAK. Emakumeen zentroa	56
27 · 19:00		HÔZUKI, LA LIBRERÍA DE MITSUKO. Aki Shimazaki	62
29-30 · 18:30		TXALAPARTA FESTA. Musika Eskola	21
29 · 11:00		KONTU KONTARI +75. Dorleta Kortazar	67

Ekaina

05-22		BITERIKO IKASTAROETAKO LANAK	56
09 · 19:00		KORONELARI EZ DIO INORK IDAZTEN. Gabriel García Márquez	63
11 · 19:00		THE PARTY. Blake Edwards	58
12		27. PRELUDIO TXIKIA. Musika Eskola	21
13 · 22:30		PRELUDIOA. Hernaniko Txistulariak, Musika Banda	18
17 · 19:00		LA COLMENA. Camilo José Cela	63
23-27		SANJOANAK. Hernaniko Txistulariak, Musika Banda	18



2026-01-16

22:00

Biteri kultur etxea

 8,50 €
Zutik

PETTI ETA ETXEKO UZTA

XX ta bortz

25 urte bete dira PETTI musikari eta abeslariak bere lehen diskoa argitaratu zuela: Amets bat. Hamaika kantu indartsu, adierazkor, gordin eta hunkigarri biltzen zituen disko hura ibilbide luze eta emankor baten hazia izan zen: 13 disko bere izenean, hainbat eta hainbat kolaborazio, zuzenekoak formatu guztietan, hibridazioak...

Eszenatokia bakarka ere aise betetzeko gai den arren, sarri berak sortutako Etxeko Uzta bandako kideez inguratu da. Hain zuzen, haiekin batera kontzertu berezia emango du Hernanin, bere ibilbideko kantu indartsu eta elektrikoenak bilduta.

Musikaren zirrara eta ahots baten dardara zure gorputz barrenera, zuzen-zuzenean.

- Petti: ahotsa, gitarra
- Joseba Irazoki: gitarra
- Iñigo Telletxea: baxua
- Igor Telletxea: bateria



2026-03-13

22:00

Biteri kultur etxea

 10,00 €
Zutik

OLATZ SALVADOR

Zainak eman

Olatz Salvador euskal musika eszenaren izen handienetako bat da. Txikitatik hasi zen musikarekin duen lotura garatzen. Musika-iriz osatutako familia bateko kide, haurtzaroan hasi zituen piano eta solfeo ikasketak eta nerabezaroan hasi zen gitarrarekin lehen akordeak jotzen era autodidakta batean. Gerora, bere formakuntzarekin jarraitu eta harmonia, ahots teknika eta baxu elektrikoa ikasi zituelarik. 20 urte zituela, Skakeitan taldean hammond soinuak eta sintetizadoreak jotzen hasi zen. 4 urte beranduago, bere bakarkako proiektuari hasiera eman zion.

Orain, bere hirugarren bakarkako lana 'Zainak eman' aurkeztera dator. Soinu organikoak eta elektronikoak oreka ezin hobean konbinatzen dituen albuma da, hain zuzen. Kataluniako Olivera estudioetan ekoiztu eta grabatutako bere lan arriskatuena.

- Olatz Salvador: ahotsa, gitarra
- Mattin Saldias: gitarra
- Jagoba Salvador: baxua, teklatuak
- Ander Zulaika: bateria
- Esti Beraza: teklatuak, ahotsa



2026-04-16**19:00****Biteri kultur etxea** 8,50 €

FEMMM & BAND

Femmm lau emakume gazte buru dituen ahots-taldea da. Ahots-laboretegi gisa definitzen dute proiektua: izan ere, musika-formakuntza arautuan ikusi zuten hutsune bat betetzeko beharretik sortua da. Laboretegi honek harmonia eta koloreen bilaketan jartzen du fokua, jazzaren eta poparen arteko nahasketa izanik honen emaitza.

Errepertorioaren zati bat a capella izan arren, zuzenekoetan musikari bikainen laguntza dute. Taldeak 2024ko martxoan debuta egin zutenetik ibilbide luzea egin du gaur egungo jazzaren eszenan: besteak beste, Donostiako, Getxoko eta Gasteizko Jazzaldien parte izan dira.

- Dánae Riaño: ahotsa
- Maider Biguri: ahotsa
- Nahia Valle: ahotsa
- Alazne López: ahotsa
- Daniel López: pianoa
- Cristina Pascual: baxua
- Iker Hernández: bateria



2026-05-08**19:00****Udaletxeko areto
nagusia** Doan

JOSEBA KORTA PACHECO

Gradu amaierako kontzertua

Gradu amaierako kontzertu honetan 150 urteko bidai bat egingo da, pianoko erreperitorio erromantiko eta garaikidea zeharkatuz. Schubert, Rachmaninoff eta Liebermann bezalako kompositoreek bideratuko dute musikaren haria.

- Joseba Korta Pacheco: pianoa



2026-05-23

 8,50 €

20:00

Chillida Leku Museoa

MADDI OIHENART ETA JUANTXO ZEBERIO

Lur

3 urte eman dituzte elkarrekin lanean, LUR denboraz eta lasaitasunez sortzen. 3 urte Gazako minaren oihartzuna entzuten.

Maddik bere Lurraz hitz egiten digu disko honetan. Eta gure lurraz hitz egitean, saihestu ezina da lur gabeak sartzea. Saihestezina Palestinaz hitzegitea.

Musikalki, Maddi Oihenarten diskorik berezienetakoa da. Kantu bakoitzak mundu sonoro propio bat osatzen du bere baitan. Sinplea bere oinarrian baina konplexua aldi berean, gizakiaren sakonera begiratzen duena. Bere txikian, disko handi bat. Konposizio eta moldaketa harrigarriak baina pausatuak aldi berean, kantuaren alde beti, Juantxo Zeberio sortuak.

- Maddi Oihenart: ahotsa
- Juantxo Zeberio: pianoa & keyboards



HERNANIKO MUSIKA BANDA

Erregeen kabalgata

2026-01-05 • 18:00

Inauteri kontzertua

2026-02-08 • 13:30

Arkupeak

Sorotan Bele & Hernaniko Banda

2026-02-15 • 19:00

Atsegindegi

Udaberriko kontzertua.

Hondarribiko Musika Banda
eta Hernaniko Musika Banda

2026-03-28 • 18:00

Arkupeak

Preludioa

2026-06-13 • 22:30

Sanjoanak

2026-06-23 • 20:00

San Joan Erronda

2026-06-24 • 09:00

San Joan Diana

2026-06-24 • 13:15

San Joan kontzertua



HERNANIKO TXISTULARIAK

Diana igandero eta jaiegunetan

09:00

Kaxkoan eta auzoetan

Erregeen kabalgata

2026-01-05 • 18:00

Santa Ageda bezpera

2026-02-04 • 19:00

Abesbatzekin batera kalez
kale

Inauteriak

2026-02-14

- 10:00: Azeri dantza
- 12:30: Erraldoi eta buruhandiak

2026-02-16

- 09:00: Diana
- 10:00: Azeri dantza

Preludioa

2026-06-13 • 22:30

Sanjoanak

2026-06-23 / 27





MUSIKA ESKOLA

Ostegun gizeneko kalejira

2026-02-12 18:00

Kaxkoan

Hernasax Jardunaldiak. David Sallerasen Masterclass eta saxo kontzertuak

**2026-02-27+28 eta 2026-
03-01**

Emakume konpositoreen kontzertua

2026-03-10 • 18:30

Biteri kultur etxean

Teklatu taldeen entzunaldia

2026-03-25 • 18:30

Biteri kultur etxean



**Ezpeletako trikitilari
eta albokariekin
elkartrukea**

2026-04-25

**Dultzainero eta
Gaiteroen Hernaniko
2. Topaketa**

2026-04-25

Perkusio Topaketa

2026-05-03

**7 urtekoentzako soinu
tresnen aurkezpena**

2026-05-13 • 18:30

Biteri kultur etxean

39. Txalaparta Festa

2026-05-29 eta 30

27. Preludio Txikia

2026-06-12

**Ikasturte amaierako
emanaldiak**

2026-06





2026-02-06

19:00

Biteri kultur etxea



Doan
gonbidapenarekin

**GEURETIK
— SORTUAK**
Udalbiltza

BERTSO SAIO TEMATIKOA

Geuretik Sortuak egitasmoak hirugarren aldia du aurten, eta zirkuitu nazionalaren hasiera markatzeko, Euskal Herriko Bertsozale Elkartarekin elkarlanean bertso saio tematikoa antolatu du Udalbiltzak. Proiektuan parte hartu izan duten bertsolariak arituko dira bertsotan Ainhoa Urienen gidaritzapean, Uxue Bereziartua komikigilearen zuzeneko marrazkiez lagunduta. Proiektuaren nondik norakoak, sortutako lanak eta egitasmoa inguratzen duten ideiak izango dituzte hizpide, besteak beste, partaideek.



2026-04-24
19:00
Milagrosa

 Arrunta 10€ / Bertsozale
elkarteko bazkidea 8€ /
Gaztea (18 urtetik behera): 8€

GIPUZKOAKO HERRIARTEKO BERTSO TXAPELKETA

Eskualdeka jokatuiko den lehen fasearen ostean,
Buruntzaldea eta Donostia/Oarsoaldea eskualdeetako
talde irabazleen arteko saioa izango da. Kutsu
informalagoa duen txapelketako saioa izango da.

Antolatzailea: Gipuzkoako Bertsozale Elkarte





2026-02-27

19:00

Biteri kultur etxea

 10 €

EUFORIA

Cielo Raso

Ekintza bakoitza ordena zehatz batean antolatuta dago, obran zehar hazten doan erritmo konstante baten zain. Dantzariak agertokira sartu eta bertatik ateratzen dira, aurrekoak uzten duen paisaia ekintza berri batekin etengabe aldatuz. Umorezko xehetasunek pultsua galtzen ez duen eta etengabeko informazioa ematen duen koreografia egituratzen dute. Eraikuntza koreografiko delikatu batekin, dantza-materialak interpreteek manipulatzeko dituzten objektuetatik abiatuta sortzen dira, tempoarekin eta bere gorputzekin modu zehatzean jolastuz, eboluzio harrigarrietan.

Euforia es la nueva creación de Cielo Raso, compañía fundada por el coreógrafo y bailarín Igor Calonge. Euforia habla de la libertad, de la belleza, del tiempo y del amor.

- Zuzendaritza / Dirección: Igor Calonge
- Dantzariak / Intérpretes: Toni Aguilera, Maialen Mariezkurrena, Jon Vernier, David Candela, Ainhoa Usandizaga
- Zuzendaritza laguntzailea / Asistente dirección: Gabriel F.
- Koreografia laguntzailea / Asist. Coreografía: Matías Sangounet



2026-03-15

11:00

Biteri kultur etxea

 Doan

AURREKU TXAPELKETA

2025-26 aurreku ligaren sailkatze froga.

Bertan, Gipuzkoako eta Nafarroako B saileko dantzariak (11-12-13 urte) eta D sailakoak (14-15 urte) arituko dira. Gazte mailako Gipuzkoar erarako Euskal Herriko txapelketarako puntuagarria izango da.

Antolatzailea: Gipuzkoako Dantzarien Biltzarra



2026-05-14

19:00

Biteri kultur etxea

 10 €

LASALA 10 URTE

Lasala dantza konpainia

Lasalak, Judith Argomanizek zuzentzen duen dantza garaikideko konpainia da. 2013an sortu zenetik, konpainia etengabeko araketan ari da hizkuntza fisiko bat eta egungo estetika bat sortzeko helburuz, taldearen kezkak islatzeko eta kezka horiei erantzuteko. Ibilbide betea eta aberasgarria, zeinari esker hizkuntza koreografiko sendoa lortu baitu, konpainiaren bereizgarria, ezbairik gabe.

Lasalaren bilakaera beraren obretan ikus daiteke. Ikuskizun honetan, piezarik enblematikoenez gozatuko dugu, bidaia bat izango baita ikus-entzuleentzat, hasieratik gaur egun arte.

La evolución de Lasala se puede observar a través de sus obras. En este espectáculo disfrutaremos de sus piezas más emblemáticas, siendo un viaje para el público desde los inicios hasta el día de hoy.

- Egilea / Autoría: Lasala
- Koreografia: Judith Argomaniz
- Zuzendaritza eszenikoa / Dirección escénica: Judith Argomaniz
- Dantzariak / Intérpretes: Garazi Etxaburu, Miren Lizeaga, Jone Amezaga, Leire Otamendi, Carla Diego, Puy Barral, Seth Durian y Javier De la Asunción



KIMU

30

marie de jongh

2026-01-24**12:00****Biteri kultur etxea****4 €****+5 urte****50 min.**

KIMU

Marie de Jongh

Kimu irudimenari buruzko ikuskizuna da, natura eta irudimena uztartzen dituen eta errealismo magiko ukitua duena. Jokin Oregik, ikuskizunaren egile eta zuzendariak, ipuin eszeniko baten bidez, sorkuntzari buruzko begirada intimoa eskaintzen digu.

O andreak multinazional batentzat lan egiten du bakardade erabatekoan, duela gutxi langile asko zegoen bulego batean. O andreari ideiak agortzen hasi zaizkio. Halako batean, natura haren lan-eremua eta gorputza bizi-berritzen hasi da guztiz eraldatu arte; naturak giza izaera berri bat sortzen duen punturaino, ideia berri bat.

- Egilea eta zuzendaria: Jokin Oregi
- Antzezleak: Ana Martínez, Jokin Oregi
- Artista plastikoa: Rosa Solé, Cristina Iglesias
- Zuzendari laguntzailea: Ana Meabe



2026-02-07**12:00****Biteri kultur etxea** **4 €** FamiliarraTesturik gabea / Sin texto
50 min.

COMPAÑA

Xampatito Pato (Galizia)

Ikuskizun honek zirkua eta txotxongiloen mundua uztartzen ditu, ikuslea mundu surrealista eta oniriko batera eramaten duten irudiak eta eszenak sortuz. Helburua esperientzia atsegin bat eskaintzea da, publikoak edertasunaz eta umoreaz goza dezan, unean uneko emozioaz arduratuz soilik.

Bakarrik dagoen pertsonaia bat konpainia bila dabil eta irudimenean bilatzen du bere pertsonaia bakoitzari bizia emateko modua. Prozesu honen bidez, lagundua sentitzea lortzen du eta publikoa sorpresaz eta barrez betetako bide batetik eramango du.

Este espectáculo fusiona el circo con el mundo de las marionetas, creando imágenes y escenas que transportan al espectador a un mundo surrealista y onírico.

- Sorkuntza / Creación: Compañía Xampatito Pato
- Interpreteta: Jesús Velasco
- Kanpo begirada / Mirada externa: Jorge Jiménez
- Eszenografia: CruLe Produccións



2026-03-07**12:00****Biteri kultur etxea****4 €****+4 urte****54 min.**

HODEI GUZTIEN GAINETIK

Markeliñe

Antzezlan honek bere lanaren errutinan harrapatuta, jolasteko plazerra ahaztu duen aita lanpetu baten istorioa kontatzen du. Egun batean, zorabio bat jasan ondoren, harrituta esnatzen da kaleko aingeru bat bizi den kartoizko hodeien artean.

Pertsonaia magiko horrekin ezarritako harremanaren bidez, aitagalduetako inozentziara bidaia hasiko du. Kartoi zati bakoitza, sinplea den hori aparteko bihurtzeko eta une bakoitza abentura bihurtzeko gonbidapena da. Animalien granja bat duen kartoizko kaxa bat, bainatzeko eta urpean aritzeko hodei bat. Kartoizko zero horretatik, urrutitik begiratzen diete munduko guduitsu eta ergelei. Baita aitarik gabe jolasten den ume bati ere, eta horrek tristura eta damua eragiten ditu, berreskuratzina den denborarengatik.

- Sorkuntza eta zuzendaritza: Markeliñe
- Antzezleak: Maite Bayón, Fernando Barado
- Koordinaketa artistikoa: Iñaki Eguiluz
- Musika: Xabier Zeberio



%100 Hodei

%100 Magia %100 Umorea %100 Lotsagabekeria



2025-03-21
12:00

 **4 €**
 **+5 urte**



%100 HODEI

Cía Mago Hodei Magoa

"Ordu magikoa" ikuskizunarekin 200 emanaldi baino gehiago egin eta gero Hodei magoaren formatu txikiko ikuskizun berria iristen da, pertsona bakarreko saioa non bere ironia eta umorea askatuko ditu, txiki eta helduentzako esperientzia dibertigarri eta ahaztezinak promesten dituzten ilusio berriekin. %100 MAGIA: efektu harrigarriak, ikuskizun honetarako sortuak eta garatuak. %100 UMOREA: Hodeirengan ohikoak diren egoera barregarri eta bitxiak. %100 LOTSAGABEKERIA: maite edo gorroto duzun ez jakitea lortuko duen bere nortasun nabarmena.

Azken finean... %100 HODEI.

- Zuzendaritza eta gidioia: Odei Domingo
- Aktorea: Hodei Magoa



2026-04-18**12:00****Biteri kultur etxea****4 €****+6 urte****55 min.**

XOMORROTOAK

Spasmo Teatro

Xomorrotxoak familia osoarentzako keinu bidezko umorezko ikuskizuna da. Antzerki dokumental formatuan, gure bizilagun ornogabe txikiak hobeto ezagutu eta haiek errespetatzen eta baloratzen ikasiko da. Antzezlanaren koloreak eta erritmoak harridura sortzen du eta, gainera, ingurumena zaintzearen garrantzia erakusten die haurrei.

- Zuzendaritza: Ángel Calvente
- Aktoreak: Isaac Tapia, Vicente Martín, Álvaro Sánchez, Gabriel Sánchez



2026-05-09**12:00****Biteri kultur etxea** **4 €**
 **+4 urte**
50 min.

AMAMA IRRIBARREEN ONDAREA

Eidabe Ekimen Kulturalak

Bizitzan beti zeozer bilatzen dugu, bai, beti zerbait bilatu nahi dugu, ez duzun hori, maite nahi duzun hori, amesten duzun hori... Gure protagonista xelebre eta zoro honek, Leak, bere lagunek dutena nahi du. Ez, ez da goxoki bat, ezta mugikor bat ere. Leak lagunek amamengandik jasotzen dituzten musuak eta bokata handiak nahi ditu. Amama bat nahi du. Amama maitagarria, berezia, sortzailea, dantzari eta majia egilea, ipuin kontalaria, eta batez ere, asko asko maiteko duen amama.

Ez da gauza erraza.. ez horixe, baina Lea, gure protagonista, amama, amatxi, amona, abuela, yaya edo dena delakoa bilatzen salatuko da, han eta hemen, behin eta berriz, eta bai ala bai.

- Egilea: Aizpea Goenaga
- Sorkuntza eta zuzendaritza: Ugaitz Alegria
- Antzezleak: Nagore Gonzalez eta Idoia Tapia
- Musika: Inun



2026-01-22**19:00****Biteri kultur etxea** **10,00 €**
120 min.

NOR NAIZEN BANEKI

Artedrama eta Axut!

Nor naizen baneki... Zuk badakizu? Jakin nahi zenuke? Bada jakin ondoren damutu denik? Angelu guztietatik nahi zenuke zeure burua ikusi, ala behar da angelu itsu bat? Ezagutu daiteke norbere burua isolatuki, norbere ingurunea ezagutu gabe? Nola jakin, zinez, zarena zarela? Gurasoen ispiluan? Seme-alabenean? Aztarnei esker? Nola jakin nor zaren, ingurune aldakor batean etengabe aldatzen dena bazara? Ez ote da antzerkia barne indusketarako tresnarik onena?

- Idazleak: Harkaitz Cano, Ximun Fuchs
- Zuzendaritza: Ximun Fuchs
- Aktoreak: Ramon Agirre, Garoa Bugallo, Maialen Diaz, Aline Etxeberri, Manex Fuchs, Idoia Tapia, Oier Zuñiga
- Koreografia: Philippe Ducou



2026-02-05
19:00
Biteri kultur etxea

 **8,50 €**

GEURETIK
— SORTUAK
Udalbiltza

ZERBAIT SARTU ZAIT BEGIAN

Imanol Epelde

Zerbait sartu zait begian spoken word-a, musika elektronikoa eta irudiak uztartzen dituen performance garaikidea da. Bizimoduaren abiadura, naturarekiko deskonexioa, zoriontasunaren bilaketa amaigabea, maskulinitatea eta euskara umorez nahasten ditu, publikoa hunkituz eta hausnarrera eramanez.

BAGARA, BAINA EZ DAKIGU OSO ONDO NOR.

Identitatea eraikitzea ez da erraza mundu azeleratu eta globalizatuan.

BAGAUDE, BAINA EZ DAKIGU OSO ONDO NON.

Hemen eta edonon egon gaitezke aldi berean.

BAGOA, BAINA EZ DAKIGU OSO ONDO NORA.

Ez norbanako bezala, ez herri bezala.

- Sorkuntza eta eszenaratzea: Imanol Epelde
- Musika: Julen Idigoras (Merina Gris)
- Ikus-entzunezkoak: Maneto eta Unai Borda
- Zuzendaritza-artistikoa: Iraia Elias eta Ainhoa Alberdi



2026-02-19**19:00****Biteri kultur etxea****8,50 €**

60 min.

Espainieraz / en español

CHARLAS DE AZUCARILLO

Les Couchers (Valentzia)

Umorezko ikuskizuna, diskurtso absurdo eta barregarri baten bitartez agerian utziko duena zein nekagarria eta antzua den etengabe zoriontasunaren bila ibiltzea.

Ellas que se hacen llamar las Couchers, con su empresa de asesoramiento, ayudan a su gente a volver a la felicidad y paz interior. Saben que su público ha sido devastado por una sucesión de baches en la vida, por ello, con su fórmula curativa, una mezcla entre la posmodernidad y la más antigua tradición enseñarán, en clave de humor, las herramientas necesarias para que las personas vuelvan a tener una vida "plena".

- Sorkuntza eta zuzendaritza / Autoría: Las Couchers
- Zuzendaritza eta aktoreak / Dirección e intérpretes: Elena Donzel, Mari Marcos



2026-03-05**19:00****Biteri kultur etxea** **8,50 €**
50 min.

AITATXO

Anakotz Lasarte

Mallabiko familia bateko kideek Gari izeneko seme bat izaten saiatu ziren, inoiz jaio ez zena: amaren sabelean hil zen. Han, dolu eta onarpen prozesu bat hasi zen. Urte gutxira saiakera berri bat egin zuten eta orduan Ekai jaio zen, baina bihotzean arazo bat zuen. Ebakuntza egiten ari zirela, hil egin zen. Bigarren aldiz doluaren eta onarpenaren bide mingarria hastera behartuak ikusi ziren. Handik gutxira beste saiakera bat egin zuten: Inhar jaio zen, zorionez gaur egun gure artean jarraitzen duena.

Antzezlan honetan, aita bere semeetako batekin hizketan ikusten dugu, zoritxarrez, jada hemen ez dagoena. Kontatzen diren gertaera eta oroitzapen batzuk benetakoak dira: aitagun bizirik dagoen semearengandik izandako esperientziak, baina hildako horietako batenak balira bezala kontatuak. Horrela, ez dagoen semea, aurrera egiteko itxaropena ematen dion ahots bihurtzen da.

- Gidoia: Anakotz Lasarte
- Zuzendaria: Telmo Irureta
- Aktoreak: Alex Tello eta Unax Uralde
- Argazkiak: Nerea Uralde
- Eszenografia: Iñigo Madurga



2026-03-26

19:00

Biteri kultur etxea

 8,5 €

KAKA

Xanti Agirrezabala, Erika Olaizola

Herriko plazan kaka-mokordo bat agertu da. Kaka azaleratu da eta egoeraren analisia egin behar da. Nork egin du? Noiztik dago hor? Eta orain, zer egin kaka honekin? Noren ardura da? Nori tokatzen zaio marroi hau argitzea? Garbitzea?

Kakak kaka dakar, eta pentsatzen jarrita... Mundua nolakoa litzateke, bakoitza bere kakaren jabe egingo balitz? Norbanako, kolektibo edo herri gisa batzen gaituen, baina ezkutatzen dugun horren guztiaren azaleratze-festa da Kaka.

- Aktoreak: Mikel Laskurain, Ainhoa Aierbe, Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala.
- Ekoizpena, zuzendaritza: Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala.
- Testua: Kepa Errasti, Erika Olaizola, Xanti Agirrezabala.
- Eszena zuzendaritza: Espe Lopez.



2026-04-23

19:00

Biteri kultur etxea

 8,50 €**GEURETIK
— SORTUAK**
Udalbiltza

BI BASO BAT UR

Metrokoadroka

Lau pertsona dantzaleku baten erdian. Bakoitzak baso bat ur du eskuan. Lauak guztiz geldirik daude, DJak inguruko jende guztia dantzan jartzen duen bitartean.

Tratu txarren osteko alaitasunaz mintzo da antzezlan hau. Tratu txarrak jaso dituen pertsona bati alaitasuna ebasten dio tratu txarren eragileak. Edozein arrazoi dela medio tratu txarrak jaso duen edonori alaitasunerako eskubidea zalantzan jartzen zaio, tratu txarren ostean ere. Antzezlan honek alaitasunaren izaera soziala jarri nahi du erdigunean, minaren ostean alaitasunaren eta umorearen jabe egitea mina gainditzeko eta ahalduntzerako ezinbesteko tresna dela agerian utziz.

- Zuzendaritza: Edurne Azkarate
- Testua eta dramaturgia: Miren Azkarate, Oier Guillan, antzezlaneko taldea
- Aktoreak: Intza Alkain, Javier Barandiaran, Marina Suarez, Iraia Elias
- Zuzendari artistikoa: Idoia Beratarbide



produkzioa

TANTARA
teatroa

EGILEA

MARIA GOIRICELAYA

DRAMATURGIA ETA ZUZENDARITZA

FERNANDO BERNUÉS / MIREIA GABILONDO

DES OBEDIENTEAK 18/98

**MIREN
ARRIETA** / **AIORA
ENPARANTZA**

**IÑIGO
AZPITARTE**

**KLARA
BADIOLA**

**KEPA
ERRASTI**

**OMAR
SOMAI**



"Bere garaia iritsi zaion ideia bat baino boteretsuagorik ez dago"
(Victor Hugo)

2026-05-07

19:00

Biteri kultur etxea

 10 €

DESOBEDIENTEAK 18/98

Tanttaka Teatroa

Ainhoa Zientzia Politikoetan doktoratu berri da eta doktoretza-tesia defendatu behar du epaimahai akademiko baten aurrean. Tesiak desobedientzia zibila jorratzen du gure demokrazietan indarrean dagoen eta beharrezkoa den borroka-praktika gisa, eta, aldi berean, esanahiz betetako adibideen bitartez, eskubide zibilen historian eta haiek irabazteko bidean desobedientzia zibilak izan duen rol erabakigarriaz hitz egiten du.

Bestetik, funtzioak bete-betean murgilduko gaitu, Garzon epaileak irekitako eginbide batzuetatik abiatuta, 18/98 sumarioaren makro prozesu judizial polemikoan, zeinetan eskubide zibilak gizarte-mugimenduei lotutako oinarri batetik defendatzen zituzten hainbat pertsonaren prozesamenduaren lekuko izan baikin.

Epaiketatik unibertsitatara eta unibertsitatetik mundura.

- Egilea: María Goiricelaya
- Itzulpena: Aiora Enparantza
- Antzezleak: Miren Arrieta/Aiora Enparantza, Iñigo Azpitarte, Klara Badiola, Kepa Errasti, Omar Somai
- Zuzendaritza: Fernando Bernués, Mireia Gabilondo



IJITOEN BIZIERAK. LUNGO DROM

Abenduak 15 –
Urtarrilak 30

1975. DENA JOKOAN ZEGOEN URTEA

Iratzar Fundazioa
Otsailak 2 – 10

MARI. Izena duenak izana du

Jaione Garcia
Santesteban
Otsailak 11 – Martxoak 6

BEREZITASUNAREN ERRONKA: berrerabilpen sortzailea dekorazioan

Susana Rodríguez Soto
Martxoak 16 – Apirilak 14

EUSKAL JANTZIEN ERAKUSKETA

Sanjoan Konpartsa
Apirilak 20 – 24

EMAKUMEA ETA KIROLA

Mendi Urruzuno
Apirilak 25 – Maiatzak 22

ESKULANAK

Emakumeen zentroa
Maiatzak 25 – 30

BITERIKO IKASTAROETAKO LANAK

Ekainak 5 – 22





BONUAK

Balioa: 2026ko urtarritetik ekainera (7 saio)

Bonuaren prezioa: 21 €. Saio solteak 4 €

Non erosi: Biteri kultur etxea

BONOS

Válido: de enero a junio de 2026 ((7 sesiones)

Precio del bono: 21 €. Sesiones sueltas 4 €

Dónde comprarlo: en Biteri kultur etxea

 19:00  Biteri kultur etxea



2026-01-23

Akelarre marearen kontra

(2025, Carlos Iglesias Serrano, Xabier Zabala Aguirrezabal) Euskal Herria

 Euskara

 Espainiera / en español



2026-01-29

Singular

(2025, Alberto Gastesi) Euskal Herria

 Espainieraz / en español



2026-02-26

The big lebowski

(1998, Joel Coen) Estatu Batuak

 Ingelesa

 Espainiera / en español



2026-03-12

Old joy

(2006, Kelly Reichardt) Estatu Batuak

🗨 Ingelesa

☰ Espainiera / en español

2026-04-09

Familientzako saio berezia

Doan



2026-04-30

Wild at Heart

(1990, David Lynch) Estatu Batuak

🗨 Ingelesa

☰ Espainiera / en español



2026-05-21

Lost in translation

(2003, Sofia Coppola) Estatu Batuak

🗨 Ingelesa

☰ Espainiera / en español




2026-06-11

The party

(1968, Blake Edwards) Estatu Batuak

🗨 Ingelesa

☰ Espainiera / en español



AMOK


Stefan Zweig

2026-01-13 • 19:00

Gidaria: Ane Mayo

Udal Liburutegia

Stefan Zweigek kontakizun ospetsu honetan obsesio deskontrolatuen eta grina erreprimatuen narratiba bat ehuntzen du, ekialdeko kolonien inguru exotiko eta itogarrian girotua.



EL CANTAR DEL PROFETA

Paul Lynch

2026-01-28 • 19:00

Gidaria / Dinamizadora: Slawka Grabowska

Udal Liburutegia

Gau ilun eta euritsu batean, Eilish Stackek Dublingo bere etxeko atea ireki eta bi polizia sekretu aurkitu zituen.

Una noche oscura y lluviosa, Eilish Stack abre la puerta de su casa de Dublín y se encuentra a dos agentes de la policía secreta



HAMABOST EGUN URGAINEN

Jose A. Loidi

2026-02-10 • 19:00

Gidaria: Ane Mayo

Udal Liburutegia

Urgain bezalako herri baketsuetan ere gertatzen dira gauza ikaragarriak.



LA VIDA DE LAS PAREDES. Sara Morante

2026-02-25 • 19:00

Gidaria / Dinamizadora: Slawka Grabowska
Udal Liburutegia

Bizitza lasai igarotzen da Argumentosa kaleko 16. zenbakiko hormen atzean, edo badirudi...

La vida transcurre tranquila detrás de las paredes del número 16 de la calle Argumosa, o eso parece...



NORBERAK MAITE DUENA

Miren Billelabeitia

2026-03-10 • 19:00

Gidaria: Ane Mayo
Udal Liburutegia

Sarritan esan didate zergatik ez dudan irakurketa-
ren inguruan idazten, ikasleekin bideratu ditudan
irakurketak direla eta ez ote dudan solasaldi
literarioei buruz ikasitakoa liburu batean jarriko.



TUYA. Claudia Piñeiro

2026-03-25 • 19:00

Gidaria / Dinamizadora: Slawka Grabowska
Udal Liburutegia

Senar baten poltsikoan dagoen paper zati batek
ezkontza baten segurtasunak dinamita ditzake,
sendoa dirudi.

Un trozo de papel en el bolsillo de un marido
puede dinamitar las seguridades de un
matrimonio al parecer sólido.



LURPEKO EZKUTUAN IDATZIAK

Fiodor Dostoievski

2026-04-14 • 19:00

Gidaria: Ane Mayo

Udal Liburutegia

Literatura modernoko lan gutxi irakurtzen dira Dostoievskiren Lurpeko ezkutuan idatziak adina, edo aipatzen dira testu hau baino gehiago gure garaiko sentiberatasunaren sakoneko ezkutua azaleratzen dituen funtsezko testu gisa.



EL ENREDO DE LA BOLSA O LA VIDA

Eduardo Mendoza


2026-04-29 • 19:00

Gidaria / Dinamizadora: Slawka Grabowska

Udal Liburutegia

Krisi garaia da. Bere borondatearen aurka, hau da, adiskidetasunak bultzatuta eta poltsikoan euro bakar bat ere ez duela, ile-apaintzailea berriz ere aztoratzaile gisa arituko da gaurko Bartzelonan.

Corren tiempos de crisis. Contra su voluntad, es decir, movido por la amistad y sin un euro en el bolsillo, el peluquero vuelve a ejercer de insospechado sabueso en la Barcelona de hoy.



TXAKUR ZAUNKAK ATEAN

Juan M. Elexpuru

2026-05-12 • 19:00

Gidaria: Ane Mayoza

Udal Liburutegia

Hamar ipuin dira guztira: luze eta laburrak, hirian nahiz herri txikian kokatuak. Joera eta alor ugari ageri dira, baina bi alor dira nagusi beste guztien gainetik: amodio eta sexu kontuak batetik eta gizarte-kezkak bestetik.



HÔZUKI, LA LIBRERÍA DE MITSUKO

Aki Shimazaki

2026-05-27 • 19:00

Gidaria / Dinamizadora: Slawka Grabowska

Udal Liburutegia

Mitsukok Lanceren liburu denda bat du, lan filosofikoetan espezializatua. Bere amarekin eta bere seme gor-mutuarekin, han ematen ditu egunak, lasai.

Mitsuko tiene una librería de Lance especializada en obras filosóficas. Allí pasa los días serenamente con su madre y Tarô, su hijo sordomudo.



KORONELARI EZ DIO INORK IDAZTEN

Gabriel García Márquez

2026-06-09 • 19:00

Gidaria: Ane Mayo

Udal Liburutegia

Koronelari ez dio inork idazten (jatorrian, gaztelaniaz, El coronel no tiene quien le escriba) Gabriel García Márquez kolonbiar idazlearen bigarren eleberria da, 1961. urtean argitaratua.



LA COLMENA

Camilo José Cela

2026-06-17 • 19:00

Gidaria / Dinamizadora: Slawka Grabowska


Udal Liburutegia

1943ko Madril miserablean, giza multzo zalapartatsu bat bero jaten, hotzari izkin egiten, desio sexuala asetzen, tuberkulosiaz libratzen, denbora hiltzen... ahalegintzen da.

En el miserable Madrid de 1943, un bullicioso enjambre humano se afana en comer caliente, esquivar el frío, saciar el deseo sexual, librarse de la tuberculosis, matar el tiempo...



Euskarazko emakume idazleen lanak ikuspegi feminista batetik irakurriko ditugu. Gidaria: Alaine Agirre



JENDE NORMALA. Sally Rooney

2026-01-20 • 18:30 • Biteri kultur etxean

Amodiozko historia bat da Sally Rooney-k eskaintzen diguna, zalantzarik gabe, baina, funtsean, munduan - eta amodioan ere - leku bila dabiltzan bi gaztek bizitza propioa eta erakargarri bat eraikitzeko egin behar duten borrokaz dihardu idazle irlandarrak.



AMORANTE FRANTSESA. Miren Agur Meabe

2026-02-17 • 18:30 • Biteri kultur etxean

Poema bidez idatzitako nobela da Miren Agur Meaberen lan hau, pertsonaia arrunt baten epopeia xumea, thriller ukituekin. Agurtzane da kontakizun honetako protagonista. 60 urte beteak, atezaina da ikastetxe batean.



ZORIONA EDO ANTZEKO ZERBAIT

Karmele Mitxelena

2026-03-17 • 18:30 • Biteri kultur etxean

Mediterraneora etorri da emakume alargundu berria. Doluaren zamak atzean utzi nahi lituzke, itsaso bareago honetako ur urdinetan jostatu. Bizitzari berriz egin irribarre, bizitza berri bati esan ongi etorri.



PUNTOBOBO. Itxaso Martin Zapirain

2026-04-21 • 18:30

Biteri kultur etxean

Ez da normala izango, esan zion medikuak haurrak urtebete zuenean. Jaio aurretik, ordea, Amak jakin bazekien barruan zeraman haurra ez zela besteak bezalakoa izango. Amak alaba etxean isolatu zuen, eta herritarren txutxu-mutxuak areagotu egin ziren.



BESTE ZERBAIT. Danele Sarriugarte

2026-05-19 • 18:30

Biteri kultur etxean

Beste zer bait ez da ohiko nobela: nobela mutantea da, gorputza eta hizkuntza aldatzen saiatzen dena. Protagonista mutazio-gosez eta desiraz desplazatuta bizi da, eta hala idazten du; bizipen afektiboak, heziketa-esperientziak eta irakurketa feministak kiribilka doaz, hainbat ahots, forma eta tonuren bidez adierazita.

ZEHAZTEKE

2026-06-16 • 18:30

Biteri kultur etxean



IPUIN KONTAKETAK



3-7 urtekoentzat



Bi saio: 17:30 eta 18:00



Biteri kultur etxean

2026-01-21

Kontalaria:

MAITE FRANCO

2026-04-15

Kontalaria:

APAXI

2026-02-11

Kontalaria:

PELLO AÑORGA

2026-05-06

Kontalaria:

MAITE FRANCO

2026-03-12

Kontalaria:

LUR KORTA

Haur bakoitzeko heldu bat sar daiteke kontaketara.
Edukiera mugatua. Gonbidapenak Udal liburutegian
astebete lehenagotik.



KONTU KONTARI +75

 75 urtetik gorakoentzat
 Elebitan
 Liburutegian

**Istorioak entzun, partekatu, memorian arakatu,
ahaztu ditugunak berreskuratu eta denon artean
gure istorio propioa egin.**

Escuchar, compartir, recuperar historias.

Gidaria: Dorleta Kortazar

2026-01-30

11:00

2026-04-24

11:00

2026-02-27

11:00

2026-05-29

11:00

2026-03-27

11:00



kultura.hernani.eus

Biteri kultur etxea

Nafar kalea, 18

20120 Hernani

T. 943 552 962



Antolatzailea



Laguntzaileak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



GIPUZKOA

Ekin. Zaindu. Bizi.